



LIBURUA

Izenburua: 'Elur-Xuri'. **Egilea:** Grimm anaiak.
Marrazkiak: Mayalen Goust. **Itzultzailea:** Luixa Giltzu. **Orrialde kopurua:** 24 orrialde, koloretan.
Argitaratzailea: Ikas euskal pedagogia zerbitzua.

Mayalen Goust ILUSTRATZAILEA

«Elur-Xuriri itxura moderno eta grafikoa eman nahi nion»

Nork ez ditu ezagutzen Edurne Zuri eta zazpi ipotxak? Mayalen Goust ilustratzaileak ere mila bider entzuna du istorio ezaguna. «Obra klasiko eder eta handia» ilustratzeko eskatu ziotenean, gustura onartu zuen erronka. Istorioari itxura moderno eta grafikoa eman nahi izan dio. Ikas euskal pedagogia zerbitzuak argitaratu du Gousten lan ederra. Elkarriketa honetako ilustratzailearen hitzak ere ikaseko lagunek itzuli dituzte euskarara.

Ezaguna da Elur Xuriren istorioa. Inoiz pentsatu zenuen istorio horixe ilustratuko zenuenik?

Sekula ez zitzaidan gogora jin Elur-Xuri egun batez ilustratuko nuela. Obra klasiko eder eta handia da. Proposatua izan zaidalarik haren ilustratzea, bizi ki hunkia izan naiz, eta dudarik gabe onartu dut.

Erronka zaila izan al da?

Zaila zen ipuin hori, anitzetan ilustratua izana baitzen. Denek gogoan dugu Walt Disneyrena, baina hainbeste ziren

bestalde egin egokitzenak, non zerbait berriren egiteko beharretan bainintzen. Elur-Xuriri itxura moderno eta grafikoa eman nahi nion.

Txikitan irudikatu zenuen Elur Xuri marraztu al duzu?

Nire Elur-Xurik badu manga alderdi bat, hain segur, haur denboran ikusten nituen japoniar marrazki bizidunen eraginez.

Nola marraztu dituzu istorioko pertsonaiak? Nolakoak dira marrazkiak?

Marrakzi fin eta mugimenduz beteak, kolore ilunak, arreta biltzen

duen gorri izpi batekin... eta magia zerbait!

Zein teknikaz baliatu zara?

Eskuz eta ordenagailuz ari naiz. Marrakzia arkatzez egiten dut, digitalizatzen dut, eta ordenagailuz koloratzen. Akwarelazo hondoak, argazkiak, materia hondoak ere erabiltzen ditut... Nahasten ditut, nire gogoko giroen sortzeko.

Hasierako marrazkiak nahiko ilunak dira; amaiera aldera kolore biziagoak dira nagusi.

Ilustrazioen koloreek kondairaren bilakaera erakustera ematen dute.

Hasieran, ilunak dira, istorioaren alderdi dramatikoaren itxuratzeko. Gero eta argiagoak eta biziagoak dira, istorioaren bukaera zoriotsuaren irudikatzeko. Bestalde, banuen kondairaren hiru kolore nagusiekin jokatzeko xedea, erran nahi baita beltza, zuria eta gorria.

Gustura zaude liburuak hartu duen itxurarekin?

Ondorioaz satifos naiz. Biziki hunkigarria da beti eskuen artean ukaitea hilabete anitzeko lanaren fruitua.



LIBURUA

'Labarreko itsasargia'

Trenean doa Ania, bera bakarrik. Etxeko istiluetatik urruntzeko, itsasertzean bizi den osabarenera bidali dute gurasoek. Giuseppe du izena osabak, eta farozaina da. Gizon isila da Giuseppe. Bere isiltasunaren atzean misterio bat ezkututzen du osabak. Marinela eta saregin, itsaslabar eta ekaitz, garai bateko maitasun debekatuen eta itsas abenturen kutsua du Fernandezek istorioak. 31. Lizardi Saria eman zioten istorioari.

Oihane Fernandez Alex Orbe

Argitaletxea: **Elkar**



LIBURUA

'Munstroen unibertsitatea'

Lagun handiak dira Mike eta Sulley, lagun minak. Baina gauzak ez dira beti hala izan. Ezagutu ziren egunean, esaterako, ezin zuten elkar ikusi. Hasierako garai haiek gogoratzen dira *Munstroen unibertsitatea* liburuan. Noiz eta nola ezagutu ziren, eta hasierako gaizki ulertuak eta ezinikusiak nola gaingitu zituzten kontatzen da, besteak beste. Zer gertatu ote zen Mike eta Sulley lagun minak eta lagun banaezinak bihurtzeko?

Argitaletxea: **Aizkorri**